

Argitaratzailea: Donostiako Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-226-05
Zuzendaria: Aritz Sorzabal
Kudeatzailea: Karmele Urbistondo
Egoitza nagusia: Katalina Eleizegi 36 behekoa
Telefonoa: 943 46 72 36
Faxa: 943-44 65 32
E-posta: donostia@irutxulokohitza.info

Webgunea: www.irutxulokohitza.info
Iritzia: iritzia@irutxulokohitza.info. 647-31 97 64
Hiria: hiria@irutxulokohitza.info. 647-31 97 69
Kirola: kirola@irutxulokohitza.info. 647-31 97 67
Agenda: agenda@irutxulokohitza.info. 647-35 56 65
Publizitatea: donostia@iragarri.net.
943-30 43 34. Loiola kalea 14-1. 2. bulegoa

Donostiako Hedabideak S.L.ko kideak:



eta, oraingoz, Donostiako beste 40 eragile

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak:

Donostiako Euskararen Udal Patronatua



Gipuzkoako Foru Aldundia



Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Euskal Kultur Erakundearentzat eta Gipuzkoako Aldundiaren Medialabek egindako 'Iparraldea XXI' dokumentalak lurralde horren egungo irudia zabaldu nahi du; gehigarri gisa, hirian egindako galdeketa ere aurkeztu du ekoiztetxeak.

Nola ikusten dute Donostian?

MIKEL GOÑI

Hotza. Hori da Donostiako gazteei Ipar Euskal Herriaz galdetuta burura daitezkeen gauzetako bat. Galdera hori da Angeluko Medialab ekoiztetxeak hirian egindako galdeketa eremaitzarik bitxia.

Euskal Kultur Erakundearen enkarguz eta Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz, Medialabek *Iparraldea XXI* izeneko dokumental laburra osatu du. «EKEan oharu dira Hegoaldeko gazteek gutti ezagutzen zutela gaurko Iparraldean pasatzen diren kultur gauzak, tradizional gauzetatik kanpo. Beraz, nahi zuten, pixkatxo bat itxura hori modernizatu», azaldu du Juhane Dascon lanaren zuzendaria.

Hasieran, 15 eta 20 urte arteko gazteei zuzendu diete lana. «Baina, erran genezake gero zabalik dela beste publikoari», nabarmendu du Dasconek. Yves Sallaberry *Xala* pilotaria da dokumentalean gidari lanak egiten dituena. Bere laguntzaz, egungo Ipar Euskal Herriko kulturaren erreferenteak ezagutuko dituzte ikusleek. Besteak beste, Euskal Herria Zuzenean festibalaren nondik norakoei erreparatu diete. Kostako surf eta rap musikaren espresabideak ikusi, edo Donostiaraino iristen den *Dantza Hirian* bezalako ekimenen berri izango dute Lekuineko pilotariari esker.

Klaxe bitxiak

Horiek guztiak, eta askoz gehiago biltzen ditu www.iparraldea.info orrian ikus daitezkeen 18 minutuko dokumentalak. DVD komertzialen gisan, gune horretan Ipar Euskal Herriari buruzko lanaren hainbat gehigarri aurki daitezke; tartean, *Donostian ikasketak egiten dituzten gazteek zer diote Iparraldez?* ikusentzunezko inkesta.

Dacone azaldu du hiria aukeratzeko arrazoiak. «Guretzat praktikoa zen ondoan delako, eta Donostian ibiltzen direlako bai Donostiako gazteak, baita Hegoaldetik Donos-



Ipar Euskal Herriko egungo kultura aurkezteko balio duen dokumentalean, Yves Sallaberry *Xala* pilotariak egin ditu gidari lanak. JOELLE VERBRUGGE

tiara ikastera datozenak ere. Hori zen ideia, gazteen kopuru txiki bat ukaitea Hegoaldeko gazteek nola ikusten zuten Iparraldea.

Hiru ideia nagusitan biltzen dira Donostian dabilen gazteek Ipar Euskal Herriari buruz dituzten ideiak. «Kultur mailan, adibidez, maskarada eta pastorala bakarrik ezagutzen zuten. Gure euskara bitxia ere adierazten zuten, beti izaten da interesgarria hizkuntzan nola ikusten gaituzten. Eta gero, zerbaitek harritu gaitu. Agitzetan etorri da hitz bat: hotza».

Klaxe bitxiak eta esterotipo zuzenak, tradizio zaharrak eta ohitura berriak, errealitate gaurkotuak eta iritzi ezohikoak. Hori eta gehiago *Iparraldea XXI* lanean eta gehigarrietan.



Ipar Euskal Herriaz gazteek duten iritziari buruz galdetu dute Donostian. MEDIALAB